

**ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA 2016
HAUTAKETA PROZESUA**

ENPRESA TEKNIKARIA: GEOLOKALIZAZIOA

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA: BEHIN BETIKO EMAITZAK

Merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzen aurka aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, Epaimahaiak merezimenduen behin betiko emaitzak onartu ditu eta argitara ematen dira.

Epaimahaiak, ofizioz, hautagaien baldintza zehatz bat egiaztatu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, hain zuzen ere DBE/RGI titularraren izatearen baldintza, ohartu delako hautagai batzuk baldintza hori betetzen dutela adierazi baina ez dutela betetzen eta beste batzuk, berriz, adierazi ez arren betetzen dutela.

Baldintza horrek puntuazioan eta ariketa edota elkarrizketak egiteko zerrendetan eragin zuzena duenez, ofizioz egiaztatu da hautagai guztiak baldintza hori betetzen duten ala ez eta horren arabera puntuazioak aldatu egin dira. Behin betiko emaitza hauetan jasota dator egiaztatzearen ondorioz egindako zuzenketa hori.

ARIKETA ETA ELKARRIZKETA

Epaimahaiak, deialdiaren 9. oinarrian ezarritakoaren argitara, erabaki du hautagaien elkarrizketaz gain ariketa praktiko bat egitea. Ariketa eta elkarrizketa egun berean egingo dira.

Ariketa eta elkarrizketa egiteko eguna eta ordua merezimenduen behin betiko emaitzen taulan datoz adierazita. Hautagaiak egun eta ordu horretan Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan aurkeztu behar dute (Urdaneta bidea 6, Zarautz). Hautagai horiei telefonoz ere deituko diegu ariketa eta elkarrizketa egiteko egun eta orduaren berri emateko.

Ariketak 30 puntuko balioa izango du eta gainditzeko, gutxienez, 15 puntu eskuratu beharko dira. Elkarrizketak 15 puntuko balioa izango du eta gainditzeko, gutxienez, 8 puntu eskuratu beharko dira. Ariketa eta elkarrizketa derrigorrezkoak eta baztertzailak dira.

Epaimahaia
Urola Kostako Udal Elkarte
2016-10-18

ENPRESA TEKNIKARIA: GEOLOKALIZAZIOA

**MEREZIMENDUEN BALORAZIOA: BEHIN BETIKO EMAITZAK
ARIKETA ETA ELKARRIZKETAK: EGUNA ETA ORDUAK**

NAN	Pertsona/gizarte ezaugarriak						Lan esperientzia								Prestakuntza								Puntuak	Ariketa eta elkarrizketa			
	Emakumea		RGI 20 puntu		55 urteik gora 10 puntu		< 1 urte		1 urte - 3 urte		3 urte - 6 urte		> 6 urte		>250 ordu		100-249		20-99		4HE		Ingelesa HEO4		GUZTIRA	Ariketa	Elkarrizketa
44331516M	1	30	0	0	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	1	0,5	2	0,5	2	0,5	0	0	0	0	32,50	9:30	11:15
72496077P	0	0	0	0	0	0	0	0	1	2	0	0	0	0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0	2,00	10:30	12:15
33446372W	1	30	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	4	1	0,5	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0	34,50	11:30	13:15

Balorazio taulari buruzko oharra:

Balorazio taulako irizpide bakoitzean bi zutabe agertzen dira: lehendabizikoan (fondo gris argia) adierazten da hautagaiak irizpide hori betetzen duen ala ez eta kopurua eta, bigarrenean (fondo urdin argia), irizpide horretan zenbat puntu eskuratu dituen. Amaieran, "puntuak" zutabean, agertzen da puntuen batura (emaitza).